9:00-9:30 Akreditazioa

**9:30-9:45** **Ongi-etorria (Mondragon Unibertsitatea)**
[auditorioan]

9:45-10:30 Mendeberri 2025 hezkuntza berrikuntza proiektua Mondragon Unibertsitatean
Jon Altuna
[auditorioan]



JON ALTUNA

Mondragon Unibertsitateko errektoreorde akademikoa da. Mondragon Unibertsitatean Industria Elektronikan Ingeniaritza ikasketak egin eta Edinburgoko Unibertsitatean doktorego ikasketan egin zituen. Unibertsitatean irakasle eta ikertzaile moduan ibili ondoren, Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan koordinatzaile akademikoa izan zen 2007tik 2011ra bitartean.

Azken urteotan, lan handia egin du unibertsitate mailako berrikuntza sustatzen. Izan ere, gizarte eraldaketa eta hezkuntza berrikuntza gaietan Euskal Herrian zein nazioartean aritu da lanean. Mondargon Unibertsitateko Mendeberri 2025 hezkuntza ereduaren garapena sustatu du eta gaurko hitzaldiak eredu horren ezaugarri zein helburuei egingo die erreferentzia.

10:30-11:30 Innovación educativa: para salir del presente
**Antonio Rodríguez de las Heras**
[auditorioan]



ANTONIO RODRÍGUEZ DE LAS HERAS

Madrileko Carlos III Unibertsitateko katedraduna eta Kultura eta teknologia institutuko zuzendaria da. Humanitate, Komunikazio eta Dokumentazio Zientzien Fakultateko Dekano izandakoa da eta zuzendari lanak egin ditu Telefónica Fundazioko “Laboratorio del Centro EducaRed de Formación Avanzada” laborategian. Master ugaritan koordinatzaile izandakoa da bai eta Sorbona eta París VIII unibertsitateetan irakasle.

Bere lanaren arreta gune nagusia teknologiak hezkuntzan zein kulturan eragindako (er)aldaketetan dago. Bi MOOC ditu: *Utopedia. Educación para una sociedad del conocimiento*; eta *La biblioteca vacía. El tránsito de la cultura escrita a la cultura digital*. Azken urteotan ere hainbat liburu argitaratu ditu: *Metáforas de la sociedad digital* (SM, 2015) eta *La Red es un bosque* (Storytel y Alt, 2017) besteak beste. El País Retina-ko kolaboratzailea da *Los alefitas: la vida en digital* atalean.

**11:30-12:00** **Kafea**
**[sarreran]**

| | Auditorioan | Gelan gardenean |
|---|---|---|
| 12:00 - 12:30 | Gizarte Digitalerako Hezkuntza eta Komunikazioa: etorkizuneko gakoak lantzen<br>Nagore Ipiña & Itziar Garcia | Formación al profesorado universitario basada en el diseño<br>Ramón Ovelar |
| 12:30 - 13:00 | | Irakasleen ahotsen ikerketa kualitatiboa<br>Iñigo Arriaran |
| 13:00 - 13:30 | Educational Escape room-a<br>Nekane Granado, Nagore Ipiña, Ainara Imaz | Primeran B1eko lan koaderno digitalak<br>Andoni Tolosa |
| 13:30 - 14:00 | Hezkuntza-berrikuntza: prozesu eraikitzailea<br>Amaia Arroyo | H5P erremintak<br>Iñigo Gebara |
| 14:00 - 15:00 | **Bazkaria** **[sarreran]** | |
| 15:00 - 15:30 | On-line irakaskuntza: eredu pedagogikoaren aurrerapausoak, zailtasunak eta erronkak<br>Ireide Arriolabengoa, Rakel Gamito, Miren Larrañaga, Maialen Urbieta | Interes bereko taldeen dinamikak:<br>15:00 - 15:45:<br>Gela gardenean:<br>Moodle Euskaraz<br>Juan Ezeiza<br>F110 gelan (1. pisuan):<br>Euskarazko Wikipedia<br>Galder Gonzalez |
| 15:30- 16:00 | Erronketan oinarritutako irakaskuntza Moodle-n<br>Edurne Galindez, Nagore Ipiña | 15:45 - 16:30:<br>Gela gardenean:<br>Hezkuntzan Librezale<br>Jabi Luengo<br>F110 gelan (1. pisuan):<br>Portfolio digitalak<br>Sirats Santa Cruz |
| 16:00- 16:30 | Epistemologia versus Pedagogia<br>Inazio Retegi | |
| 16:30- 17:00 | **Itxiera eta lekukoa-ematea** **[auditorioan]** | |

moodle moot

EUSKADI 2019

MOODLEMOOT EUSKADI 2019

**MOODLE ERABILTZAILEEN 12. TOPAKETA**

2019 MAIATZAK 10

ORONA-IDEO (HERNANI)

mooteu.eus

#mooteu19

ANTOLATZAILEA

Mondragon Unibertsitatea

BABESLEAK

econocom

Inycom

Orona fundazioa

LAGUNTZAILEAK

ueu

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Berritzegune Nagusia

LaSalle Berrozpe LSB Andoain